

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Hurbiltasunezko Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko 2018-2020ko Plana onartu du

5 milioi euro inguruko aurrekontua duelarik, hauexek ditu helburu nagusietako batzuk: lankidetzaren publiko-pribatua eta sektore barruko lankidetzaren sustatzea, Nafarroako merkataritzaren lehiakortasunean aurrera egitea, berrikuntza erraztea eta negozio berriak abian jartzea

Asteazkena, 2018.eko otsailak 21

Nafarroako Gobernuak [Hurbiltasunezko Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko 2018-2020ko Plana](#) onartzeko erabakia hartu du gaurko saioan, sektorearen lehiakortasunean aurrera egiteko, berrikuntza errazteko eta negozio berriak abian jartzeko asmoz. Planak 4.854.000 euroko guztizko aurrekontua du, eta 1.618.000 euroko kopuru banatan esleituko da hiru urtetan (2018, 2019 eta 2020an).



Hurbiltasunezko saltoki baten irudia.

[Planak](#) 4 lan-ildo nagusi ditu, urte hauetan garatu beharreko 11 ildotan eta 37 ekintza zehatzetan egituratuta, betiere merkataritza sektorearen kezkei, beharrei eta interesei erantzun eta Foru Komunitateko merkataritza jardueraren garapen orekatuagoa errazteko xedez. Gogoratu behar da [zirriborroa 2017ko maiatzean aurkeztu zela](#) eta ekainean ekarpenak egin zirela.

Parte-hartze bidezko metodologia

Dokumentua parte-hartze bidezko metodologia baten laguntzaz landu da, Foru Administrazioiko unitateen eta merkataritza sektorea ordezkatzeko duten erakunde publiko nahiz pribatuen esku hartzeaz. Prozesuko fase honetan, tokiko erakundeak, enpresa publikoak, merkataritza-elkarteak, garapen-agentziak eta Gobernua bera –Lurralde Antolamentuko eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren nahiz Merkataritza eta Turismo Zuzendaritza Nagusiaren bitartez– ordezkatzeko dituzten 47 pertsonak parte hartu dute guztira (25 gizonak eta 22 emakumeak), etxeko etxe egindako inkestez gain.

Plana lantzeko 1. fasea bukatu ondoren, zirriborroa lurraldeko egindako 5 aurkezpenen bitartez jakinarazi zuten Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusiak eta Planaren idazketa egiteko kontrataturiko kontsultoretzak. Aurkezpenak Iruñean, Zangozan, Bertzen,

Tafallan eta Tuteran egin ziren. Horietara tokiko erakundeak nahiz garapen-eragileak eta merkataritza-elkarteak gonbidatu zituzten, baina interesatutako pertsona guztiei irekita. Prozesuko fase honetan, beste 45 pertsonak parte hartu zuten (28 emakumek eta 17 gizonek). Halaber, dokumentuaren zirriborroa Gobernu Irekiaren atarian argitaratu zen, alegazioak eta ekarpenak jasotzeko agerpen publikoko aldia irekiz. Epealdi horretan, 8 erakunderen iruzkinak eta ekarpenak bildu dira, eta horietatik 2 zatika onartu dira.

Lau helburu nagusi

Merkataritza Bultzatzeko Plan berri hau 4 Programa edo Jarduera-Esparru nagusitan egituratu da, merkataritza sektorean esku hartzen duten eragileak aldeaz edo moldez bereizten dituzten 4 helburu nagusiri erantzunez. Honela, argi utzi da, Nafarroako hurbiltasuneko txikizkako merkataritza bultzatu ahal izateko, ezin dela era isolatuan lan egin. Horren harira, planak egitura piramidala ezarri du, horren oinarrian ekintzaileak eta sektoreko enpresak kokatuz –merkataritza sektorearen helburu eta helmuga–, zertxobait gorago elkarteak eta bitarteko erakundeak, eta goiko aldean, Foru nahiz Tokiko Administrazioak.

Programa bakoitzaren bitartez, moldatzeko soluzioak eskaini nahi dira, eragile hauetako bakoitzaren eraginkortasunik handiena lortzeko xedez, baina betiere era koordinatuan eta eragile bakar baten jarduera edo hobekuntza merkataritza sektore osoaren mesedekoa bihur dezakeen ekosistema komertzial baten barruan. Testuinguru honetan:

- 1. Programan, “Merkataritza Sektoreko Gobernantza Publikoa bultzatzea” delako helburuari jarraiki, Administrazioari (Foru Administrazioari zein Tokiko Administrazioari) zuzen-zuzenean eragiten dioten jarduera-ildo eta neurri zehatzak bildu dira, Nafarroako merkataritza sistemaren antolamendu orekatua lortzeko. 2 jarduera-ildo planteatzen ditu: Merkataritzaren Lurralde mailako Sustapena eta Antolamendua eta Egokitze Urbanistiko-komertziala.

- 2. Programan, “Enpresa-Lankidetzaren sustatzea” delako helburuari jarraiki, enpresa-elkarteei (sektorialeiei nahiz zonalei) eta bitarteko beste erakunde batzuei zuzen-zuzenean eragiten dieten jarduera-ildo eta neurri zehatzak bildu dira, sektoreko ETEen arteko enpresa-lankidetzaren areagotu eta baterako zerbitzu erantsiak abian jartzeko xedez. 4 jarduera-ildo planteatzen ditu: elkartegintza bultzatu eta finkatzea, hiriko merkataritza, landa-merkataritza eta turismoarekiko eta artisautzarekiko osagarritasuna.

- 3. Programan, “Merkataritzako Enpresa Txiki eta Ertainaren Lehiakortasun mailan eta Garapen Teknologian aurrera egitea” delako helburuari jarraiki, lehiatze-ahalmena areagotzeko xedez merkataritzako enpresa txikiei zuzen-zuzenean eragiten dieten jarduera-ildo eta neurri zehatzak bildu dira. 3 jarduera-ildo planteatzen ditu: kudeaketaren hobekuntza eta garapen teknologikoa, prestakuntza eta tutoretzak eta kalitatearen eta iraunkortasunaren kultura.

- 4. Programan, “Merkataritza sektorean Berrikuntza eta Ekintzailetza erraztea” delako helburuari jarraiki, ekintzaile berriei nahiz negozioa zabaldu, enpresa-egitura finkatu eta lokal eta bulego hutsen egungo merkatua dinamizatu nahi duten enpresei zuzen-zuzenean eragiten dieten jarduera-ildo eta neurri zehatzak bildu dira. Bi jarduera-ildo planteatzen ditu: belaunaldi-ordezkapena sustatzea eta merkataritza-ekintzailetza bultzatzea.

Guztira, 4 programa hauen barnean, 11 jarduera-ildo eta berriazko 37 neurri garatuko dira Plana abian jartzeko. Halaber, Planaren barnean, argi gelditu da Nafarroako Gobernuaren departamenduen arteko koordinazioa eta elkarlana nahiz tokiko erakundeekiko lankidetzaren behar-beharrezkoak direla.

Planaren gauzatzearen jarraipen egokia egiteko, horren emaitzak Nafarroako Merkataritza Kontseiluaren aurrean aurkeztea planteatu da kontrol neurri gisa, Turismo eta Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiak urteko aurkezpen publikoa egiteaz gain.